

"Zazie metroan"  
Raymond Queneau  
euskaratzailea: Joxan Elozegi  
Ibalzabal, 1996

Aurrera doa "Literatura Unibertsala" bilduma, pasa da 50. liburutik, eta hau bezala, batera atera direnetako edozein harnezake aipagai: Jane Austen-en "Harrotasuna eta aurrejuzkuak", Ana Isabel Moralesek itzulia, Apuleioren "Urrezko astoa", Igerabide eta Lertxundik euskaratua, Duras-en "Maitalea", Mikel Garmendiak itzulia... Denak ere titulu bikainak eta maisuki euskaratuak, nik ikusi ditudanak behintzat. "Zazie metroan" komentatzeko eskatu didate ARGIAN eta horretara noa.

Queneau bilatzaile eta berritzaile nekagaitza izan zen bizi osoan. Surrealisten artean ibili zen, Bataille eta Gesteren babesean, eta gero "Oulipo" sonatu hura sortu zuen, esperimentaziorako atelierra. Esperimentalismo hori nabarmena da bere hainbat obratan —"Exercice de style" esaterako, eta baita "Zazie" honetan, honekin egungo arrakasta lortu bazuen ere—. Zer kontatzen du nobelak? Hitz gutxitan: Zazie, 14 bat urteko neskatxa, lehenengoz Parisen, egun eta erdi pasatzen osabarenean, mendearen erdi aldean. Abiapuntu arrunt horretatik, batere arrunta ez den testua eraiki du Queneauk, elkarrizketetan oinarritua; izan ere, etengabe ari dira denak hizketan, eta horren adierazgarri zehatza da nobelako loroaren lelo errepikatua: "Hitz eta pitz ari haiz, hitz eta pitz, besterik ez dakik egiten". Solasaren teknikak arintasuna ematen dio kontaketa, eta batzuek funtsik ez izatea leporatu dioten arren nik baietz esango nuke, erretratu sozial eta psikologiko bikainak lortzen baitute. Eta umorea, noski, absurduarekin nahasturiko umore berezi eta fin bat orrialde guztietan zehar isuri eta irria loratzen dizuna.

Louis Mallek filme bat egin zuen istorio honekin, nik ikusi ez dudana, baina berba-jario lasa eta oparoak "nouvelle vague"-ko zuzendari miretsi haiek ekarri dizkit gogora: Eric Rohmer, Claude Chabrol, François Truffaut...